

Juan Garzia Garmendia

Euskal zinemagintza garai batean hain entzutetsuaz gehiago ezer entzuten ez den garai honetan, aspalditik dabilkit gidoi-idea bat. Gaur hemen botatzea otu zait ea posibledunik interesatzen den. Filmea sekula egingo ez balitz ere, irakurlearen eta bion artean irudimenean pasatuko duguna ez digu inork kenduko, behintzat, eta hartara, bere xumean, ez zorrik eta ez diru-zulorik (pribatu zein publikorik) utzi ez duen lehen filme-asmoa izan liteke gure zinemagintzaren historian.

Hiru protagonista dira, historikoak, garai bera bizitzea egokitu zaiena. Bata, Donostiako Antzoki Zaharreko atezaina, liriko erromantikoa eta jostaria izatez, eta foruzalea politikan. Garbi dago jarrera gatazkatsu horrek interes berezia duela filmean, porrot iragarri baten trajikronika baita, noski, haren historia haren itxura fisiko deskalabratu xamarra eta anekdota historikoren bat (etxeke leihotik kainoi-bola karlista batek zauritzea haren heriotzaren berri dakarren egunkariko azalean egun berean jasotzea foruak kendu dituztela...) nahikoa izango dira erretratua bixitzeko.

Bigarrena, Errenderiako fabrika handi bateko langilea, sortzez eta gogartez baserritarra zirisartzailea, erlijiozalea eta bakea armekin ere defenditzeko prest dagoena. Irudimen eta irudikatze-gaitasun harrigarri batek ematen dio egokiera guztietan pertsonaia horri. Horrek eta ironia-aire zorro-zorro baina nabari batek Astanabarreriak hilko du, gazterik.

Hirugarrena, berriz, lanbide jakinik gabeko kantautore bat, herrizale nostalgikoa eta munduz munduko ibiltaria. Politikoki, karlista anarkistatzat jo daiteke. Gitarra zahartxo bat lagun, txapel txikiak eta eta bizar txuri luze-handiak karakterizatzen dute, hainbat bizi-pasadizo bitxirekin batera. Ohean zahardadez eta Euskalerrri maitera itzuli gabe hilko da, eta filmeak ironia hori azpimarratuko du.

Filmea ez da, hala ere, Bilintxen, Xenpelarren eta Iparragirrenen bizitzen anekdotarioa, ez eta bertso-kanta ezagun (egile-eskubide gabe) mordo bat sartzeko aitzakia. Abiapuntuan bai, bertso famatua kantatuko dio Xenpelarrek Iparragirreri, *"Errenderian bizi naiz eta egin zaidazu bixita"*, baina urretxuarrak eduki egingo du enbidioa eta han agertuko zaio. Lizentzia historiko hori agertuz gero, hobe denak batera hartzea: Bilintx ere, Manterolaren tertulian enteratu, eta hara joango da, mando horren betoker bat harturik, enkontru haren lekuko izateko irrikan. Berak nahi zein ez, saltsan sartuko da (edo dute).



Euskal-western ukitua ere izan dezake, horrenbestez, hiruon topaketak, eta Errenderi Village hori hiri enblematikoa bilaka daiteke, gehiegi markatu gabeko sinbolismo puntu bat landuz. Zuzendari ausartago batek, apika, hiru protagonistak beren artekoak erabakitzen dituzten bitartean, inguruko hiria filmeko minutu bakoitzeko denboran urtebete aurreratzen azalduko luke. Biharamunean (gaur), ajerik gabe iratzarriko liriteke, elkarri begira: bata zurez, bestea harriz eta bestea burdinez, zein bere herriko plazan. ✎